





# LOS COMERCIOS DONOSTIARRAS SE UNEN A LA TAMBORRADA

**Los establecimientos comerciales recogen el espíritu y la tradición de las fiestas con frases significativas de la Tamborrada**

Ya se aproxima el día grande de San Sebastián y el comercio local ha comenzado a ambientar y decorar nuestras calles. Este año, de cara a la celebración del día de San Sebastián, el tejido comercial de la ciudad va a proyectar un fuerte sentido de entidad y celebración.

Em torno a 120 comercios de todos los barrios se han unido a una iniciativa que consiste en exponer, en sus tiendas y escaparates, frases icónicas asociadas a la Tamborrada, que recogen el espíritu y la tradición de esta celebración única. "Beti pozez, beti alai" o "Donostia bat bakarra munduan" serán algunos de los ejemplos que se pueden ver en los escaparates. Estas frases, impresas de manera llamativa, no solo servirán como un adorno festivo, sino que también desencadenará un sentido de reconocimiento y pertenencia entre los donostiarras.

La concejala de Economía y Empleo Local, Marisol Garmendia, ha agradecido la implicación de los comercios en una fiesta "que es de toda la ciudadanía donostiarra, también de su comercio como parte importante del día a día de la ciudad. El pequeño comercio de San Sebastián vive la gran fiesta de la ciudad en primera persona, la disfruta y la viste, equipa a sus compañías, adorna los rataplanes de cada compañía y sociedad. El día de San Sebastián y el comercio van de la mano y con motivo del 20 de enero exhibe orgullo de ciudad y de fiesta"

El comercio de proximidad de San Sebastián quiere fomentar un sentido de identidad y aprecio hacia la Tamborrada. No solo buscan resaltar la importancia cultural y emocional de la Tamborrada, sino también reforzar su lugar en el corazón de los donostiarras.

La iniciativa ha partido de Donostia Festak y cuenta con la organización de la plataforma de comercio San Sebastián Shops, en colaboración con el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco y la concejalía de Economía y Empleo Local del Ayuntamiento de San Sebastián.

# DONOSTIAKO SALTOKIAK DANBORRADARA BATU DIRA

**Merkataritza-establezimenduek jaien espiritua eta tradizioa jasoko dute, danborradako esaldi esanguratsuekin.**

Badator Donostiako egun handia, eta herriko merkataritza gure kaleak girotzen eta apaintzen hasi da. Aurten San Sebastian egunaren ospakizunari begira, hiriko merkataritza-sareak modu sinbolikoan partaidetza eta ospakizun sentimenduak zabaldu nahi du.

Auzo guztietako saltokiek bat egin dute ekimenarekin, hau da, beren denda eta erakusleihoetan Danborradari lotutako esaldi bereizgarriak eta ikonikoak erakutsiko dituzte, ospakizun bakar honen espiritua eta tradizioa jasotzen dutenak. “Beti pozez, beti alai” edo “Donostia bat bakarra munduan” izango dira erakusleihoetan ikusiko ditugun adibideetako batzuk. Modu deigarrian inprimatutako esaldi horiek jai-giroko apaingarri izateaz gain, donostiarren artean errekonozimendu eta pertenentzia zentzua ere sortuko dute.

Marisol Garmendia Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotziak eskerrak eman dizkie saltokiei "donostiar guztiena den festan parte hartzeagatik, baita hiriko eguneroko merkataritzan parte hartzeagatik ere. Donostiako saltoki txikiak lehen pertsonan bizi du hiriko festa handia, gozatu eta jantzi egiten du, bere konpainiak hornitzen ditu, konpainia eta elkarte bakoitzaren rataplanak apaintzen ditu. San Sebastian eguna eta merkataritza eskutik doaz eta urtarrilaren 20a dela eta, hiriaz eta jaiaz harro dago "

Donostiako merkataritza berriro irauli da Donostiako jaiekin batera, Danborradarekiko nortasun eta estimu zentzua sustatuz. Danborradaren garrantzi kultural eta emozionala azpimarratzeaz gain, donostiarren bihotzean duen lekua indartu nahi dute.

Donostia Festak-en ekimena da, eta San Sebastian Shops merkataritza-plataformak antolatu du, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarekin eta Donostiako Udaleko Ekonomia eta Tokiko Enplegu zinegotziarekin elkarlanean.